JORRALLA
22
Eguaztena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ile
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.277 zenbakij

Gayak

CASARES QUIROGA

Casares edo dalako oren ixena, bein baño sarijago entzun ixan doguna da. Mustur zorotzeko gixona da, ixan, baña bai esku gogorekua be.

Casares Quiroga'k eskuba ezarten dauan lekuban, loratza be ezariko dau.

Bilbao'ko "La Gaceta del Norte" deritxon Enao txaideko "andra-aundijak" be, aboko txaranbela gura leuken azkatasunaz erabilten lagako ba'leuskijue, laga, Quiroga oretzaz zeozer esango leuke, ta naruba uldu al ba'leutso, uldu be bai urian.

Andra-aundi oneri, beintzat, Quiroga mustur-zorotz eta esku-gogor ori, zegatijaren bari garbirik eztogun-aren, etxako begiko. Bai bata ta bestia, ezkongai eztagozan lez ezkongai ba 'legoz, egon, eta arek oneri ezkontzeko itza eskatu, onek ezezkua erantzungo leuskijola-ta gagoz, baña esakunak diñuan lez "santuak janzteko" geratuko litzakela jakinda be.

Enao txaideko "andra - aundijak" gura eztabela be, baña, Azaña jaunak gura dabelako-edo, Quiroga jauna bariro be erkaltsein egin dabe, ta jaurle-erkaltseintzara igon.

Eta altsein edo ministro-aulkijan jezari daneko, gudari-buru zaren janzkijetako autsak astintzen asi da; zigora irabazi ixan dabela begitandu ixan yakenai, neuriko zijorak ezarten.

Or egunotako matxinadetan sartuta -edo, naste-borastietan ibili ixan diranen usaña-edo artu ixan dautsen gudari-buru zarak euren burubak zurituten juan yakazanian, Quiroga mustur-zorotzat zorotz erantzun biar ixan dautse. Eta bere zoroztasunari erpiña moztuten auzartu ixan yakenari, esku gogora erakutsi ganera, olango gudari auzartuben bateri-edo, espetxerako bidia erakutsi dautsala be entzun ixan dogu-ta.

Euren etxietako gentzara aldenduta aurkitzen diran gudari-zar orein egunotako matxinada-guria, guretzat matxinadatik urun bixi garanontzat, ulertkatxa da, ixan. Olango nastiak ulertuteko-ta, Quiroga gu baño zolijagua -edo da.

Arek, beñepein, eskuba arin ezari dautse, ta ezari dautsen lekuban loratza itxi be bai.

Oraingo España'ko eriketa - naste onetan, antzokijetan eta igelestokijetan ikusten diran baño be antzezkixun geyago ikusteko aruan-edo gagoz.

Atzo, zugatz-ganian txairo ta alai abestuten eban txorijak, gaur kayola -baruko abesti ituna abestuten dausku. Eta atzo, kayola-abesti ituna abestuten ebanak, ostera, oyan eta zugazti-ziaretako azkatasun-abesti alaya.

Atzoko Casares Quiroga mustur -zorotz-esku-gogor negartijak, gaur bare zabala ta alaya egiten dau. Aren negarak bare eragiten eutsenak, ostera, negar dagije. Eta negarok, Enao txaideko "andra-aundijaren" begijetaraño eldu dira. Oraingo ixilaldi ituna bide dala aboko txaranbela ugertuten ezpa-yako ugertu, ekatxaldi onen ondoren arildu gurako dauan mataziari erpiña oratuten dautsana, ezta arilizale makala ixango, oratiño.

Eun urteko bixija dauanak, ikustekorik asko ikusi biar dauskuz ondiño, baña entzutekorik asko entzun be.

Eta bitartian, gixartian sortu dan naste oneri erea artuta gixarteko gentzea lortu dagijanari, gixirudi berezi bat jaso biarko yako. Lenguak ezer ixan ezpa-liran-edo, ¡gudari-buru zarok erakutsi yuek atzea...!

GUDEA

Gudea gixartetik betiko ayenatu biar zala-ta Europa'ko gixonik jakintsubenak alkartuta batzarak-batzar egiten ibili ixan ziranian, morokila ta esnia jaten iñardu ixan ba-ziran, iñardu, guda-ayenatziaz egin ixan eben lana baño lan onurakoragua egingo eben. ¡Bai bein!

Guda-areyo purukatu ta gentza-zale bijozbera orek, gudea ayenatutekuan, ¿ekari eztauskube egin, ba...?

Andik, ortik, emendik naiz bestetik, guda-anotsak baño eztira entzuten. Eta ikusi be, guda-izkiluben erpin zorotzak baño ez...

Aor, Italia, Mussolini buruzagija aurretik dala, azkenengo abisiniara luralduteko gertetan. Azkenengo altsein-batzarian Mussolini buruzagijak oguzi ixan dauzan itzak dirala-ta irakuri doguzanak, onixek dira, ba: "Abisinia osua izkilu-bidez birindutia jaditxi arte, gudea-egin biar yako".

¡Ora, or, ainbeste urtian eten bako gentza-iñarkunetan iñardu ixan diran guda-areyo ta gentza-zaliak Ginebra ta abar jaso ixan dabezan gentza-zugatzen igalijak...!

Gentza-zale orein babespian seme -alabaen gentzea ta zorijona imini ixan daben gorasuak, orein zintzotasuna ikusi-ondoren, ankak luzatu, ta ardurage ta nasai lo-egin leikela esan lei.

¡Gentzea!, ¡bakia...! Buruzagijak izkiludun diran-artian, eta gixonen bijotzetatik ayeri ta kurukatxuba ayenatuten ikasten eztan arte, gixartian gentzarik ezta ikusiko, gixa-bijotza, goroto-bijotza, edo gorotora ariñago makurtzen dan bijotza dalako.

Gixonak itz ederak esaten dauz. Egiñenak, baña, oguzten dauzan itzakandik urun ibilten dira. Eta itzaen buztarpeko eztiran egiñenakaz, eztago gentzarik, ezta zorijonik be: ¡ezebez...!

Ginebra'ko gixonak, Abisinia gustija efe ta kiskaltzen diñarduben bitartian, gentza-baldintzak adiralduten deragoyoe.

Zeregin aztun oretan egun batzuk geyago iraun ba-dagijez, iraun, Abisinia'ko luraldietan basapiztirik be bixijaz ezta geratuko bariz.

Italia'ren asmua be orixe da: gentza-baldintzetan sartu orduko, Addis Abeba ta Etiopia gustija euren menpe imintia.

Gaiztokitar gurari deunge ori lortuten ba-dabe, lortu, gentza-baldintzak eta txoriburuben axe-itzak, ¿zetarako?

Europa'ko jakintsuben jakintsu-ixakera bakan eta ulertu-ezin orek, lekaruan zuzentza-egariz egunoro soña zurdaztubaz bixi diran lekautirañoko gustijak boltxebiki biurtu biar dabezela dirudi.

Zuzentzarik eztago egon be iñun. Edo ba-dago be, ondo ostenduta dauke, gixartian, beintzat, antxiñako Diogenes'en kurtzulu-argijaz be ezin idoro leike-ta.

Zozolistuak be zuzentza-egari ei -dira.

Bakaldunak agintzen eban aldijan, eurak gura eben zuzutsa Erkal'ian idoroko ebelakuan, Erkal-egari ixan ei-ziran.

Eta orain Erkala ekari dabenian, ainbeste urtetan ames-egiten eben zuzutsik, Erkalia'n be ez ei-dabe idoro.

Beraz, Erkala'gaz be, atzez-atze jari dira, alkari begiratu gura ezta. Eta Largo Caballero edo dalako zaldun ixeneko orek, langilien agintza-bidia lortu biar dabela diño. Lortu be arin egin biar dabela, ta agintza-aulkira elduteko biderik laburenetik asita lortu be.

Naste au ulertuteko lain argi daukana, len aratu dogun "Diogenes" edo Dugen'en kurtzuluak baño argi geyago dau, urian.

Babel'go doria egin zanian be oraingo beste naste ta ulertu-ezin etzan ixango, ba.

Euzko-ikuriña dala ta eztala, or Madrid'en eta emen Euzkadi'ko Madrid-zalien artian sortuten dan naste ta ulertu-eziña be, ba, Babel'go edestijan imintéko lakoxiak dira.

Casares Quiroga jaunak esan dauanez, euzko-ikuriña bide dala esan ebana, be, txarto ulertu ei-zan.

Euzko-ikuriña ezagutu ta ondo ulertuteko, euzkotara ixan be ixan biar da, ta abertzale zintzua ganera.

Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" atzeri -zaliak be, auzi au, ezin ulertu ixaten dau, ezta Enao txaideko "Cedas" jantzita agertu gura leuken andra-aundi aroputzak be.

Euzko-ikuriñaren auzi ori onduen ulertuten dabenak, Jel-eguzkijaren argiz argituta gixarte-zuzutsari adi zuzen dabiltzan euzko - abertzaliak dira.

Beraz, irakurle, Euzkadi'tik atazko nastiari jaramonge, Jel-eguzki argijari jaratu dagijogun, bein be galduko ezkaran bide zuzenetik egira ariñen eruango gatuz-eta.

Uribitarte'tar Ibon.

¡Kirol anei urratz!

"Azkena" deritxon neure lagun matiari.

Lorarik lora dabil
"Erletxue" Egaz.
Euren usain gozuaz
erleteiruntz dua.
Aberija batian,
kirola bestian
bere bijotz samura
zintzo-zintzo dabil.

"Jai" baten entzun neutzun
berba gogor auxe:
Fiña da "Erletxue"
"Egas" baña arlotia.
¡Ez, ene lagun matia
ori ezta olan.
Bijak gauza bat dira
gogo bat daukoe.

Aberiko landetan
egin daigun lana.
Danak daukez loreak
usain gozodunak.
Kirolak biar dira.
Aberija azkatzeko
indara ona yaku
gastedi-artian.

"Erletxue" fiña da?
"Egas" arlotia?
Bijak euren lanetan
ba-dauke umoria.
Goi batera joteko
gustia da indara.
Bitartian "Azkena"
ezeik jo tronpetia.

Ezta uste dozunez
ain arlotia "Egas".
Lora baten bakarik
eztaiteke gelditu.
Landa ederetan legez
lora askotxu dira.
Batzuk usain bat dauke,
bestiak bardingia.
¡Danak eruan daiguzan
geure erletegira!

Erletxue eta Egas.

Euzkotar Umientzat

Atetxo itxusia

Arritokieta

Onetan iritxi zan bertara ankan lokari goria zeraman Kalkuta'ko atea, eta itz egin zuan ate ta atekumeakin, baña esan zuan negargaria zala atetxo itxusi aren itxura, ain trauskila, lepa luze eta luma bakanduna.

Amak bere umetxoa aldeztu zuan, oso ona zala, eta gañera edertasunak baño ona izateak geyago balio zuala esanaz.

—Tira ba, erantzun zuan Kalkuta'ko ate dotoreak, ori orela ba'da ez det nik, zer esanik. Ongi etoriak ba orduan danok. Bai dakizute noski emengo alkatea naizela, eta noizean bein mokadu gozoren bat bialtzeko egin beara dezutena.

—Bai, jauna.

Beste atekume danak ondo artua k izan ziran ibai aundian, baña atetxo itxusia ez. Iñork ezin ikusi zuan gixajoa eta batek bultza, besteak jo, besteak mokoka erabili zuten. Bere amak naikoa lan izan zuan bera aldeztu eziñik. Pabo anka aundi ganbero batek ikusi zuanean aurean artuta ia ia arapatu zuan, baña atetxo itxusia bere burua estu ikusi zuanean uretan sartu ta iregi asi zan gogor, eta laster iges egin zuan bere ondotik. Pabo kankalua an gelditu zan ur ertzean oroaka, amurruen amurruz gori-gori eginda.

Atetxo itxusiak ez zuan iztanpeteko atsedenik. Egun guztian ezer jateko astirik ez zuan izan oi, bere burua aldeztutzen naikoa lan izaten zuan, eta gabaz beriz egunez igaro zituan laritasunak eta estutasunak gogoraturik ez zuan lorik egiten. Loak artu ezkero beriz ames txarak esnatzen zuten.

Gerotxoago bere anai-arebak ere burla egiten zioten eta edozer gauza esan, eta azkenerantz ama ere beste guztien erakutzi txarakaz aldata edo, beintzat begiratzunga garbitu bearean erabiltzen zuan.

Atetxo itxusiak ezin eraman zezakean bizimodu ura denbora luzeagoan, eta egun batean bizi al izango ba'zan bertan bera laga guztiak eta iges egin bear izan zuan.

Al zuan guztian egazka egiñaz zingira batera iritxi zan eta an antzar batzuek aurkitu zituan. Itxusia zala arpegira bota zioten, bai, baña ez zioten oregaitik ere kalterik egin eta pozik.

Antxe igaro zituan pake-pakean egun batzuek, baña gutxien uste izan zuten goiz batean tiro batzuek pun! pun! entzun ziran eta baita antzar batzuek ankaz gora erori ere.

Beriala etori ziran txakur eiztariak eta bat atetxo itxusiaren aurean jari ta begira-begira egon zitzaion. Baña, ureratu ta usai egin zion aren. ez zion kalterik egin eta aufera jo zuan.

—Itxusia naizelako edo lagako ninduan—esan zuan atetxoak. —Oraingoan neure itxusitasunari zor izango diot noski neure bizia.

Baña, bada ez bada ere zingira ertzeko zumitzetan bere burua eskutatuta egon zan eiztariak alde egin artean.

Bakarik gelditu zanean ekin zion bideari eta juan da juan, txabola baten aurean gelditu zan, eta ate zarak zeukan zulo bat ikusirik anditxiek barura sartu eta antxe gaba igarotzea pentzatu zuan, kanpoan oso aize otza zegoan egon ere ta.

(Darraike.)

¿Zer dantzugu?

Euzkadi, gure Aberi onen ego aldeko lateritik datorkuzan oyu ta alaurijak, bildurgarijak dira benetan.

Otzikera ta dardara daragie gure gorputz eta gogoetan.

Nok ziñistu Europa onen baster batean, eta ogei garen gizaldijan, ainbat nabarmenkeri legikezan enda eta gizonak bizi dirana?

Mendijak bera, edurtza ugarien igasi gosez zelayetaruntza yatsiten diran otsuen antzerako gizonak bizi dirala, esan giñaike, lateri oren baruan.

Kalbo Sotelo jaunak irakuri ditu kongresuan Otsalaren amalautik asita, epalaren ogeta seigarena bitartean yazo diranak; baña eurak ainbat gizalditan, zer egin eben, ori ez.

Bakaldarak izan dira artezkari gizaldietan eta zelan ezeben zuzendu eri oren gogoa bide obean?

Deungekerija erein da gero, zer artu legike ba deungekerija baño besterik?

Uste aldabe egun batetik bestera sortu direala gizon artega oneik, peretxikoen antzean?

Zenbat, alegin egin zenduen emen geure lurean be, ber-berori yazo elkean? Etziran ba zeuen adizkedeak Regueral'en agindupean euzko-langileak erailduten, oneri laguntzen eutzenak? Eta orain zer?

Lo egoala uste zenduen ba, Jaungoikoa?

Orain igasi datoz gure Aberira bakearen bila, atzoko gure arerioak, estu ta lari, kabernikolan babespera, euraen lurálde zibilizuak bertan bera laga-ta, beste aldi baten Mahomataren igesi euraen asabat etori ziran antzean.

Ainbat bidar euzkotarok zabaldu dautsaguz geure beso eta ateak enda oneri, bere estu aldietan, eta beti eskertxaran alderako.

Garale diranean, aro eta zekenak, eta menpeko diranean, bildurti, satortuta lurpean.

Atzoko epale aro ta dolorak, gaurko epalien igasi, oso-osuan dakitelako batzuek eta, besteak, ez dabela legea neurija, gorotua baño.

Orain batzuek eta gero besteak, dan-danok erukige eta gorotuaren aur kestari.

Alperik aldatu lege, eretxi ta agintarijak; alperik deitu bakaldar nai erkaldar, gizon ber-berak dira, enda ber-beraren, griña bereziakin.

Ezker ta eskoyak batzuek ukabilak yagita aserez, eta besteak euraen erastun aruakin iribañeka, gorputz batetik yagiten diran besuak dira, biotz edenduan sustarak esarita.

Il lenago aintzat artu baño iñoren eskubidea, eta ezdakuste gaxoak, era berean izango dirana neurtuak eurenetan.

Legeak eta legeak, yaurti daroez edonundik artuta, oldoztu barik, egokiak direan ala ez, euraen oitura ta gogoakin, eta sasitza ta ari artean ereinten diran azien antzera, usteltzen dira.

Gaur eraletzat zalatuak, bijar zeruko aingeru dira; orain espetxeko zokoetan, eta gero edura baizen orbange, danoen agintari.

Gaur gizon antzera, ben-ben damoen itza, bijar atso antzera, ukatzen dabe.

Izkuntza labanaren semeak dira, nunbaitabe euraen gogo labanduak.

Erijak yagi baditu, aren bizkar gañean yartzen dira, urkuluka.

Indararen aurka yagi badira ostera, indararen aurkeztari.

Gaur kistar zindo, bijar elexak kiskaldu.

Ona datozanean dan-danak, edo geyenak dira, katoliko zindoak euraen abija gertu artean, eta gero or konpon.

Dan-danak dira yakitun ta aberatsak, eta gu txiro ta yakingeori, on egiten datoz euraen lurálde ta maitasunak lagata, eta emen ikasten dabe yaten.

Eskerak eurari, eidakigu zerbait, eta ludiko basterétatik yaurti daroez, euraen griña txarak gaitik, eta gu euskaldunok ostera, maite gaitue edonun.

Eurak doguz agintari geure lurean, era gustietan, eta geuk erakutsi dantzagu bizibide geyenetan eta abar...

¡Emengo aberatz monarkikoak ou onekin bardintzeko alegin itsugarijak egin ditue. ¡Zoritxarekoak eurak, ordu onetan, ori lortu balebe!

¡Badabe, zergaitik goraldu, Sabin, gure Irakaslearen izena!

Perulara.

Ikastola

Ikastoletan irakatsi bakarik egin biar dala diñoenak okeř dagoz. Irakaskintzea adimenaren argitasunari buruz egiten da. Baña ikastolen zeregiña astun eta garantzitsuago da. Ikastoletan irakaskintzeagaz batera gixakuntza edo edukaziñoa arduratu biar da. Adimena argitutia ona da eta biar biarezkua, baña beragaz bakarik ezta ezer lortuten. Gixonak egiteko gixakuntzea biar da. Gogo edo arimiaren eta ontasuneran gixakuntza edo edukaziñoa. Gixonak jayotzez onak dirala eta ontasunera duazala uste dabenak eztakare uste zuzenik. Katoliko irakatsijak eztauskube olakorik erakusten. Gixona obenagaz jayoten da eta geroago be oben-gatxa beti beragaz eruango dau. Ikastolak gaitz ori zuzentzera jokatu biar dabe; gixonetan zuzentasun azija erein eta ontasun-miña irariaz.

Baña zuzentasun-maitasun ori suspertu ta sortu eragiteko geure eta geure kidekoen gain dagon norbaiten bildura biar da; geure gañetik eta geure agintari lez agertuko dan norbaiten keska ta begirapena biar dira. Eta norbait ori nor ixan lei Jaungoikua besterik?

Jaungoiko barik...

Jaungoiko barik eztago onoimenik; ezin lei ulertu zuzentza miñik, gitxiago anaitasunik. Jaungoikuaren agindu etan oñarituten eztan ontasuna utsa da; eziña. Ontasun orek ezin lei iñoren gogorik biartu.

Kant'ek jaraitzale asko dauz. Ontasunaren eginbiara agirija dala eta agintzerik eztabela biar Kant'egaz uste dabenak euren eritxi ta ustien okera eurez ikusten dabe. Jaungoiko bako ontasuna norberekerijak eta norbere ardurak lasterí lurperatuten dabe.

Ikastoletan ontasuna erakutsi ta ontasun-min ori gixonengan sakonkiro irari biar da. Baña Jaungoiko barik ontasunik be ezin leikela adierazi dogu. Ikastoletan ba Jaungoikua erakutsi biar da.

Eritxi batzuk

Gixonik okerenak eta ezkertarenak argiro ezagutu ta azaldu dabe erlejiñuak gixonengan daben indara eta gixartiaren bake ta zuzentzarako daben ala.

Girardin, katolikotasun - min gitxi agertu eban idazleak iñuan: "Erlejiño bako ikastolak zabaltzia txarkerija eraldutia, txarkeririk ankerena eraldutia da."

Zanella'renak dira jarayan duazan itzok: "Ezta egija ez-jakintasuna gatxik okerena dala. Erlejiñua bastartuten daben jakintzea txarkerija bera baño okerago da."

Zola idazle loyak erantzun auxe emon eutsen, gixonen gogo gustijekaz jaubetu ziran erailketa-gogai edo ideen zabalkunde bizkora atzeratuteko zeregin biarko ete zan itanduten juan yakezanei: "Agintarijak ziñesmenera biurtu daitezala eta ziñesmen oren guna artu dagijela lege gustijak; kistar ziñesmenen odola gixartearen zain gustijetan-ziar ibili daitela eta ludija gaizkatuko da."

Thiers'ek bere aldetik iñuan: "Ikastoletako umiak kistargetuten ba'dozuez ziur egon zeuon aurka jagi ta iruntziko zaituezala."

Garofalo sozialista ezagunak ikastoletzaz egin eban idazti baten idatzita laga eban: "Irakaskintzeak eztau mamiñik eta oñaririk erlejiño barik. Erlejiño irakaskintzea bastartu ezkeroz umiak eztabe entzuten min-egin biar danik; eztala ostu, erail, atzipetu biar: kidekuak maitatu biar diranik eta abar."

Zetarako jaraitu eritxi geyago agertzen?

Errijetatik

BERMEO

KATALANDARAK.—Frances Macia, katalandar abertzale entzutetsubaren ixena Bilbao - Deusto'ko txaide eder bateri ezariten dautsola ziyo "Associacio d'Amics del Pais Vasco,,'ko zuzendarijak ixan ziran emeko Batzokija'n astelenez.

Euzkadi'ko itxas - bazteretik euren txanguan lagun egiten erdu ziran Barcelona'n egoten dan Duñabeitia jauna, Irisari, Abando, "Lauaxeta" eta beste amaren bat abertzale.

Irisari'k lenen, eta katalandar Bazkuneko lendkari-ordia danak gero, ederto mintzaldu ziran Aberi azkatasunatzaz.

E. A.-B.'ko zuzendari dan Uriarte 'tar Elixabete andereak, eta Muñoa'tar Arantzazu poxpolintxoak Katalunya'ko Emakume Abertzaliai opaldu eutsoen Aberi bi onetako marguakaz jantzita lora-txorta eder bana.

¡Visca Catalunya Lliure! eta ¡Gora Euzkadi azkatuta! abotsez agurtu ziran ikerlarijok igez egin baño len.

"Els Segadors" eta "Gernikako Arbola" erestu eban Bermeo'qo eresbatzak be.

ARPIDIA. — Gipuzkoa'ko Ernani'n erail dabien Aranburu eta Lasa'tar Joseba (G. B.) aberkide zintzuaren guraso zaren alderako Bermeo'ko Euzko-Gastedija'k arpidia irigita dauko. Ezer gure dabenak ba emon eruan beyoe Batzoki"ko kontzerkiari. Eup anayak. Lagundu¡

ASTE DONIA. — Eliz-jai ospatsu oneik be biar diran erau igaro ziran. Bake eta itzalian. Bai mintzaldu be, laztankiro, Muxika'ko Zalo-Etxebaria 'tar Kepa juaparija, eta eriko-seme dau Madariaga'tar Gotzon ata pantzeskara.

Elixak iker ikertubak ixan dira aurten.

ARAUTZ ETA ONANTZ.—Gure artian aurkitzen dira atseden aldija euren sendi artian igaroten erduta Asteinza'tar Benin. Agire'tar Andoni, Albaina'tar Bingen eta Gandiaga'tar Andolin. Gustijori ongi etorija.

—Enbeita'tar Kepa, Euzkadi'ko Ure -txindora be emetik ibili zan Zalo -Etxebaria kistar txonislari ospatsuari lagun egiten etorita. Agur.

—Osatu edo axiak aldatuten juan da aurkitzen da Villarreal de Alaba deritxon uritxuban Anasagasti'tar Ilare anderea bere iloba Monasterio'tar Ilare neskatilia lagun dabela. Lasterí osatu.

Zenbatzak

Zenbatza edo numeruak er tijak baño argijago agertzen lejiñorik irakasten eztan okera.

Frantze'n erlejiño bako ipiñi ta amar urtera ogei urt rako 16.000 erailien ordez, 41. ziran.

Urte baten bakarik Paris'e pau ebezan 26.000 legeausletik ezeuken ogei urterik.

Urte areitako baten, 1880'g tian, Frantze'n euren burubak zanen artian 53 mutiko eta kato amasei urtetik berakua eta 372 mutil eta 409 neska tik ogetabaterartekuak.

1897'garen urtian Fouillee'k eban: "Paris'en legepian ipini egun umetik osta-osta iru ixa ra erlejiñodun ikastoletatik u

Zenbatza oneitan irakuri t daikezu, irakurle, ta eritxi gustijetan baño argijago ira erlejiño bako ontasuna, erlejiño tartuten daben ikastoletatik dan ontasuna zelako eta nor dan.

AR

Deunen bixitzea

Perdinanda deuna, Ca eta León'go bakald

ORILA-30'GN.

Perdinanda bakalduna. seme bontsa IX'garen semia ixan zan 'go bakaldunaren eta Bereng umia. Amaren ugutzetik ikasi onoimenak-eta, olantxe eraku emon bai-eban bixitza osuan. amearen zeregiñai eta esana; ja lar egiten eutselakuan, erregegol tzuk masiaiari asi yakozan, bañ dinanda deunak olantxe erantzu tsoen: "Semia ixango enazanian ña, be, enayako ixango".

Bakaldun bati dagokijozan duna ez-eze bijotzaen jaun eta zan. España'ren jaube ziran mal ak at jaurti egikiezantzat, er atzemon eban. Leon eta Cast erijak bakia zer dan erakutsi er eta Valencia eta Granada'ko er be, bere menpeko itxuli ebazan cia, Cordoba, Jaen eta Sevilla rubak, be, bere zainpera ekari er Ogetamasei urtetan gudubak ara rendak, be, zenbatu euzan.

Iñoiz eneban ezpatarik saga atera, uririk eneban esitu ezta g lurik auts-biurtu, Kisto'ren zilin edatu nayez baño. Jaungua'ren o tza eta aintza zabaldu nairik, gustijetan atzenengo gudarijak ebilian. Sevilla esitu ebenian, bes darijak legez, gau-zain egoten na oian barik lur-ganian lo-egijan.

Bere menpekoen zaintza azka kan eta eritarai ozeutsoen zerga rik itsatsiten. Eta erege-otsenen tzuk eskatzen eutsoenian, mai gudea egiteko edo zergak getu e zala, beti erantzuten eutsen: B garijago yataz neure lateriko a baten biracak, Apirka'ko mairu tijenak baño".

Seville'ko urija bereganatu eb ibildeun ikuskarija egin eban, nak, gotzañak eta jauparijak bur ralarik eta Bakaldunen Miren 'ren irudijaz.

Bi anei inguru ixan ziran M opaldu eutsozan ertxadon eta txonuak. Azkenez, bakaldun bati kionez bere erijak zaindu-ondo -zorijan eguala igari eban eta liak-eta ezer agindu eutsoen ba nago, Jauna-artu eban eta lok idunetik dindilizka eukolarik i eutson erijotzeari.

Erautsa burutik bera jaurti e eskatu eutsen bere moroyal. emazte Jone eta semiai agur-eg tsoen, aolku onak emonaz. Iñok karik bere kalte ba-eukon pa egijela, eskatu eutsoen. Eta iñok ezertxu ezeukola bere kaltez era eutsoenian, besuak jaso ebazan runtz eta oyu-egin eban: "Sc etori nintzan ludi onetara eta tsik aldenduten naz. Gero "Te D abestu egijela, be, eskatu eutsoe berak be poz-pozik abestu eban batza'ren abesti guren au. "Ludi tijak onesten zau, Aita Betikor Itz onexek esan ebazanian, b makurtu eban eta zerugoyetara e ka juan zan bakaldun deun-o Edestilarijak diñuenez, bakaldun zanian, lateri gustijak negar-e eta gixonak bixarak ebagiten eb Alhamar mairuen bakaldunak, be mairu bialdu ebazan aren il-lore

Castilla eta Leon laterijak ixan ben bakaldunik onenatarikua auxe zan, 1252'garen urtian il zan eta duz gero etzan bake andirik ixan alde aretan.

BASERITIK. — Eurijen egari dira azpaldiz gure lur-langilak. aingoan asetuko diralakoan nago, bai.

Urk